



Arartekoaren 2016R-124-15 Ebazpena, 2016ko uztailaren 7koa. Horren bidez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio trafikoko araudia hausteagatik jarritako zigor bat indargabetzeko (zehapen-prozeduraren zk.: XXX).

Aurrekariak

1. XXX-k kexa bat aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean, Bilboko Udalak jarritako zigorrari dagokionez. Zigor hori jarri zion udaltzain batek bere ibilgailuaren, XXX matrikuladuna, aurka jarritako salaketa bat dela-eta, "*zamalaretako aldean aparkatzea*"-gatik (zehapen-prozeduraren zk: XXX).

Eman zigun dokumentazioaren arabera, agenteak salatutako egitatearen berri izan zuen irudiak biltzeko bitarteko baten bidez. Horren bidez lortutako argazkia izan da udalak zigorra jartzeko kontuan hartu zuen arau-haustearen froga bakarra.

Kexagileak aipatutako egitatea ukatu zuen. Adierazi zigunez, bere ibilgailua aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duen seinale bertikalaren atzean zegoen; seinale horrek zamalanetako aldea mugatzen zuen. Bere ustez, seinale hori ez errespetatzeagatik zigortu zuten, baina bere ibilgailua ez zegoen seinalearen aurrean, seinaleak mugatutako gunean. Gainera, azpimarratu zuen ibilgailuak ez zuela zirkulazioa oztopatzen.

Interesdunak adierazi zigun aparkatu zuen zatian lerro horizontal hori batzuk zeudela zigzag moduan; lerro horiek seinale bertikalak mugatutako zamalanetako aldean jarraitzen zuten. Era berean, adierazi zigun seinaleak nahasgarriak zirela; hala, interpretatu zuen seinale bertikala hartu behar zuela kontuan, trafikoko araudiak seinale desberdinek adierazitako preskripzioak kontraesankorrak ematen duten kasuetarako ezartzen dituen irizpideak aplikatuz.

Kexagileak esan zigun arau-haustearen froga gisa erabilitako argazkian soilik ikusten zela seinale bertikala eusten zuen zutoina, baina berak zehapen-prozeduran seinale osoaren beste argazki bat aurkeztu zuela. Bertan, debekuaren norabidearen gezi bat ikusten zen, bere ibilgailua zegoen aurkako norabidean.

Adierazi zigunez, udalak zentzu horretan aurkeztutako alegazioak ukatu zituen, oinarritzat hartuz aparkatu zuen lekua zigzag formako marka horizontal batekin seinaleztatuta zegoela eta marka horrek aparkatzea debekatzen zuela. Izan ere, oro har, markatutako gunea gordeta egoten da autobusak gelditzeko edo zamalanetarako.

Kexaren arabera, kexagilea zigortzeko kontuan hartutako arau-haustea ez zen izan seinalea ez errespetatzea, baizik eta zamalanetako aldean aparkatzeko debeku espezifiko ez betetzea, azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazioko Araudi Orokorren 91.2.g) artikuluan ezarritakoa.

Interesdunak jakinarazi zigun salaketaren aurrean aurkeztutako alegazioen idazkian eskatu zuela guneko seinaleak argitzeko. Bere eskaeraren ondorioz, udalak zamalanetako aldea izateagatik aparkatzea debekatzen zuen seinale bertikalaren aurreko guneko zigzag moduko marka horizontalak kendu zituen, azkenengo seinale horrekin bateragarriak izateko. Bere ibilgailua gunen horretan





zegoen aparkatuta. Esan zigun aldaketa horretan jaso zela aipatutako zatian aparkatzea baimentzen zela.

Kexaren sustatzaileak uste zuen aldaketak argi uzten zuela ordura arte egondako seinaleak ez zirela egokiak eta ezin zitzaizkiola egotzi seinale desegokiak ondorioak.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Bilboko Udalera jo genuen, azaldutako gaiei buruzko informazioa eta zehapen-prozedurari dagokion administrazio-espeditentaren kopia bat eskatzeko.

Halaber, zamalanetako aldea mugatzen zuen seinale bertikala kokatuta zegoen leku zehatza eta kexagilearen ibilgailua aparkatuta zegoen lekua adierazteko eskatu genion, baita data ere. Horrez gain, salaketa jarri zen unean zegoen seinale horizontala bertikalera egokitzeko arrazoiak adierazteko eskatu genion.

Eskaera horri erantzunez, udalak adierazi zigun zigorra jarri zela zamalanetako aldean aparkatzeko debekua ez betetzeagatik; gune hori mugatzen zuen seinale bertikalak ezartzen zuen debekua. Gainera, esan zigun interesdunaren ibilgailua seinale horren atzean zegoela. Hala eta guztiz ere, zigorra justifikatu zuen esanez ibilgailuak seinalea gainditzen zuela, eta adierazi zigunez, hori kexagileak berak aitortu zuen salaketaren aurka aurkeztutako alegazioen idazkian; hori ondorioztatzen zen ere horrek zehapen-prozeduran aurkeztutako beste ibilgailu batzuen argazkietatik. Amaitzeko, hauxe adierazi zuen: *"la infracción imputada (estacionar en carga/descarga, obstaculizando) se cometió, con independencia de que la ubicación de la señal fuera mejorable, por razón de que las marcas viales, o señalización horizontal, también resultan de observación obligatoria"*.

Halaber, udal informazioan jakinarazi zen ezinezkoa zela interesdunaren ibilgailua osorik egotea seinale bertikalaren atzean. Izan ere, *"mide una longitud de 3953,00 mm y por lo tanto ha de rebasar necesariamente la señal vertical. Esta señal se hallaba colocada a 2,70 m. del saliente de la orejeta junto al que se hallaba estacionado el vehículo, tal y como se nos informa desde el Área de Circulación"*.

Era berean, udalak beste ibilgailu baten bi argazki eman zizkigun; ibilgailu hori interesdunarena zegoen toki berean zegoen. Horiek entregatu zizkigun justifikatzeko azkenengo horrek seinale bertikala gainditu behar izan zuela. Hala, zehaztu du argazkietako ibilgailua *"es más largo (4390 mm) que el del interesado"*. Argazkietako batean, ikus zitekeen ibilgailuak seinalea gainditzen zuela. Hala ere, erakunde honen ustez, ez zuen "gehiegi" gainditzen, udal administrazioak jo zuen bezala, baizik eta pixka bat. Osterantzean, bestean ez zen ikusten ibilgailuak seinalea gainditzen zuenik.

Hala ere, udalak zigorra justifikatzeko emandako azalpena ez zetorren bat kexagileak kexarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin. Dokumentazio horren arabera, zigorra jarri zitzaion jo zelako aparkatutako gunea, hau da, zamalanetako aldea mugatzen zuen eta aparkatzeko debekua adierazten zuen seinale bertikalaren aurreko gunea, zigzag moduko marka horizontalekin seinaleztatukoa, zamalanetako aldearen barruan zegoela. Zigorra ez zitzaion jarri seinale bertikala gainditzeagatik.





Gainera, kontuan hartu ditugu udalak aurkeztutako argazkiak; horiek aurkeztu zituen frogatzeko interesdunaren ibilgailuak gutxienez 1,253 metrotan gainditu behar izan zuela zamalanetako aldea mugatzen zuen seinale bertikala. Horrez gain, kontuan hartu dugu arau-haustearen argazkia bera. Horrela, erakunde honen ustez, ez du ematen ibilgailuak seinalea adierazitako luzeran gainditu zuenik.

Bestalde, arau-haustearen argazkiak erakusten zuen ibilgailua zamalanengatik aparkatzea debekatzen zuen seinale bertikalaren aurreko gunean zegoela aparkatuta. Hala ere, ezin zen ikusi seinalea gainditzeko zuten.

Udalak baieztatu zuen seinale bertikalera egokitu zituela interesdunak aparkatu zuen seinale horren aurreko zatian dauden zigzag moduko marka horizontalak; hala, marka horiek kendu ziren eta zati hori aparkatzeko mugarik gabe utzi zen.

Hala ere, udal informazioan ez ziren azaltzen aldaketa hori egiteko arrazoiak ezta aldaketa noiz egin zen ere.

Informazio hori eta interesdunak eman zigun informazioa ikusita, erakunde honek udalari helarazi zion kexaren balorazioa, gogoeten ondorengo atalean adierazten diren antzeko terminoetan. Horrela, adierazi zion kexa eragin zuen zigorra indargabetu behar zuela, ematen zuen bezala, kexagileari zigorra jarri bazitzaion zamalanetako aldea mugatzen zuen seinale bertikalak ezartzen zuen aparkatzeko debekua ez errespetatzeagatik, ulertuz interesdunak aparkatu zuen zigzag moduko marka horizontal horiekin seinaleztatutako seinalearen aurreko zatian debekua mantentzen zela.

Era berean, Arartekoak udal administrazioari eskatu zion adierazitako zentzuan jarduteko prest zegoen jakinarazteko. Horrez gain, eskatu zion seinaleak aldatzeko arrazoiak adierazteko, baita aldaketa egin zen data ere. Halaber, berriz ere eskatu zion zehapen-prozeduraren administrazio espedientea; ez ziolako bidali.

3. Bigarren eskaera horri erantzunez, udalak zigorra indargabetzearen aurka dagoela esan du. Bere erabakiaren oinarritzat hartutako argudioak, funtsean, bat datoz jadanik ezagutarazi zizkigunekin; erakunde honek argudio horiek hartu ditu kontuan kexaren balorazioa egiterakoan. Zehazki, azpimarratu zuen interesdunak ez zuela bete seinale bertikalak ezarritako zamalanetako aldean aparkatzeko debekua eta ez zuela bete seinalea gainditu zuelako. Hori, bere ustez, agentearen salaketan egiaztatu zen, arau-haustearen argazkian eta *"propia confesión del interesado, que, en su escrito de alegaciones, ordinal 2, reconoce, como ya se ha dicho antes que su vehículo rebasaba la citada señal, ya que manifestó que la mayor parte de su vehículo se encontraba fuera del espacio delimitado por la señal"*. Gehitu zuen salatutako eta zigortutako arau-haustea ibilgailua zamalanetako aldean aparkatzean zetzala, oztopatuz. Horrela, adierazi zuen sailkapen hori uneoro mantendu zela. Era berean, adierazi zuen interpretazio desberdinak egin ahal zirela zigzag moduko marka horizontalekin seinaleztatutako gunean aparkatzeari dagokionez; bata erakunde honek helarazitakoa, eta bestea, *"igualmente posible la realizada de parte municipal que coincide con el literal del art 171 del RD, y que viene a significar que la zona de la calzada señalizada con esa marca establece la prohibición de estacionamiento a los vehículos en general, utilizándose la misma para zona de parada autobuses con destino a la carga y descarga de vehículos. En este*





concreto caso nos encontramos con que el vehículo se encontraba, aun parcialmente, incumpliendo la prohibición establecida por la señalización vertical, por lo que entendemos que todo debate al respecto resulta superfluo". Azkenik, adierazi zuen ez zuela kontraesanik ikusten seinale bertikalaren eta horizontalaren artean; izan ere, "pues ambas son perfectamente compatibles y han de ser igualmente respetadas, sin que tengamos constancia de que la marca vial en Zigzag deba venir apoyada en leyenda alguna".

Udalak adierazi zigun seinaleen geroko aldaketa 2014ko urriaren 25ean egin zela eta ezin zuela baieztatu aldaketaren arrazoia. Gainera, hauxe adierazi zuen: *"nos parece obvio que dado que la misma es manifiestamente mejorable, la razón bien pudo ser esa, y quizás el detonante último del cambio fue el escrito de alegaciones del Sr. XXX, de fecha 9-7-2014".*

Udal informazioak ez zituen argitu erakunde honek izandako zalantzak interesdunaren ibilgailuak seinale bertikala adierazitako neurrian gainditzearen ezintasunari buruz.

Bestalde, udalak zehapen-prozedurari dagokion administrazio-espeditatea eman zigun bigarren aldi horretan. Horrek hauxe adierazten zuen:

-agente salatzailleak honela deskribatu zuen salatutako egitatea salaketan: "zamalantako aldean aparkatzea, oztopatuz". Gainera, dokumentu horretan jaso zuen egitate horrek hautsitako manua Zirkulazioko Araudi Orokorraren 91.2. g) artikulua zela.

-ebazpen-proposamenak salatutako eta zigortutako egitatea aipatu zuen termino hauetan:

"Que en el caso que nos ocupa, el vehículo se encontraba estacionado sobre marca en zig-zag que indica 'el lugar de la calzada en que el estacionamiento está prohibido a los vehículos en general, por estar reservado para algún uso especial que no implique larga permanencia de ningún vehículo. Generalmente se utilizan en zonas de parada de autobuses o destinadas a la carga y descarga de vehículos'. Por lo que no hay duda de que el vehículo se encontraba estacionado en zona destinada a carga y descarga".

-ebazpen-proposamenaren arabera, salatutako egitatearen argazkia izan zen arau-haustearen froga bakarra. Dokumentu horrek hauxe esaten zuen horren inguruan: *"revisado el expediente sancionador, se comprueba que consta en éste fotografía origen de la denuncia (...) en la que se aprecia con toda nitidez (...) la infracción cometida, consistiendo esta en estacionar en carga/descarga, obstaculizando"*

-arau-haustearen argazkiak erakusten zuen interesdunaren ibilgailua aparkatzeko debekua adierazten zuen seinale bertikalaren aurreko espazioan zegoela aparkatuta; seinale horrek zamalanetako aldea mugatzen zuen. Hala ere, ezin zen ikusi seinale hori gainditzen zuen.





-kexagileak zehapen-prozeduran aurkeztutako argazkiek erakusten zuten aparkatzeko debekuaren seinale bertikala, zamalanetarako aldea kotatzen zuena, R-308 motako seinale bat zela, eta gezi bat zeukala kexagileak aparkatutako lekuaren aurkako norabidean. Horretan, honako legenda hau zegoen:

*"08:00 14:00
ZAMALANAK IZAN EZIK
EXCEPTO CARGA Y DESCARGA
GEHIENEZ/MÁXIMO 30 MIN"*

-espedientean ez zegoen salatutako eta zigortutako egitatearen erreferentzia gehiagorik, ezta arau-haustearen frogaren erreferentziarik ere; aurretik adierazitakoak baino ez zeuden.

-kexagilea Zirkulazioko Araudi Orokorren 91.2.g) artikulua ez betetzeagatik zigortu zuten, arau-hauste larri baten erantzule gisa.

Gogoetak

1. Aurrekarietan azaldu den bezala, kexagileak zigortutako egitatea ukatu du, hau da, *"zamalanetako aldean aparkatzea"*. Berak adierazi du zamalanetako aldea mugatzen zuen aparkatzeko debekuaren seinale bertikalaren aurreko zatian aparkatu zuela eta, bere ustez, seinale hori ez errespetatzeagatik zigortu dutela. Horrez gain, esan du zati horretan ez zela debekua aplikatzen eta ezin zela zamalanetako alde gisa hartu; izan ere, ez zegoen horrela seinaleztatuta. Gainera, adierazi du bere ibilgailuak ez zuela zirkulazioa oztopatzen.

Kexaren inguruan emandako informazioan, Bilboko Udala bat dator kexagilearekin, hau da, zigorra jarri zen ez zelako zamalanetako aldea mugatzen zuen seinale bertikalak ezartzen zuen aparkatzeko debekua bete eta ibilgailua seinale horren atzean zegoen. Hala eta guztiz ere, adierazi den bezala, zigorra justifikatu du, esanez ibilgailuak seinale bertikala gainditzen zuela eta interesdunak aparkatu zuen seinale bertikalaren aurreko zatian zeuden zigzag moduko marka horizontalak ere derrigorrez errespetatu behar zirela.

Era berean, aurrekarietan adierazi egin da, erakunde honen ustez, zehapen-prozeduraren oinarri den salaketan agertzen den zigorra eragin zuen egitatearen deskribapenak eta ebazpen-proposamenean agertzen den egitatearen zehaztasunak ez dutela justifikazio hori bermatzen, zigorra interesdunaren ibilgailuak seinale bertikala gainditu zuelako jartzeari dagokionez.

Dokumentu horien edukia adierazi dugu aurrekarietan ere; horien arabera, zigorra ez zen jarri zamalanetako aldean aparkatzea debekatzen zuen seinale bertikala gainditzeagatik, baizik eta horren atzean aparkatzeagatik, zigzag moduko marka horizontal horiek soilik mugatzen zuten gunean. Izan ere, jotzen da gune hori ere zamalanetarako gordeta dagoela.

Nabarmendu behar da zehapen-prozeduraren administrazio-espedientean ez dagoela zigorra eragin duten egitateen beste erreferentziarik, soilik jadanik adierazitakoak eta arau-haustearen argazkia. Horren arabera, ibilgailua zigzag





moduko marka horizontalekin seinaleztatutako gunean zegoen, seinale bertikalaren aurrean.

Udalak kexaren inguruan eman digun justifikazioa ikusita, gogorazi behar da administrazio hori lotuta dagoela administrazio-espeditentean zigorraren eragile gisa agertzen diren egitateengatik. Horrez gain, geroago ezin dira egitate horiek aldatu zigorra justifikatzeko, administrazio egintzak ofizios berrikusteko prozeduretara jo gabe eta zehapen-prozedura berri bat izapidetu gabe. (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 138.2 eta 102. artikulua eta ondorengoak).

Administrazio espeditentearen arabera, azpimarratuko dugu zigortzen den egitatea dela zamalanetako aldea mugatzen zuen aparkatzeko debekuaren seinale bertikalaren aurreko gunean aparkatu izana. Izan ere, jo zen gune hori zamalanetako aldearen barruan zegoela. Beraz, ez da zigortu gune hori mugatzen zuen seinale bertikala gainditu izana.

Zigorraren baliagarritasuna kexagileak adierazitako ikuspegitik aztertzean, erakunde honek nahitaez hartu behar du kontuan administrazio-espeditentearen arabera zigortu den egitatea eta ez udalak adierazi diona.

Nolanahi ere, zehaztu behar da interesdunak berak aurkeztutako alegazioak direla espeditentean dagoen kexagilearen ibilgailuak seinale hori gainditu zuenaren egiaztapen bakarra. Horietan, adierazi zuen ibilgailuaren zatirik handiena seinale bertikalak mugatutako espaziotik kanpo zegoela. Udalak aipatzen dituen gainerako frogak ez dute egitate hori egiaztatzen.

Bestalde, gogorazi behar da zigor bat eragiten duten egitateak behar bezala definituta egon behar direla zehapen-prozeduran eta horren inguruko edozein zalantza ez dela bateragarria zehapen-arloa eraentzen duen beharrezko ziurtasunarekin (Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua).

Aurrekoa kontuan hartuz, erakunde honen ustez, ez da bidezkoa udalak kexa honen xede den zigorra justifikatzea administrazio-espeditentean zigorraren eragile gisa agertzen ez diren egitateekin. Horrez gain, ezin du hori justifikatu desberdinak diren egitateekin, geroago arrazoituko den bezala, ezta legez desberdin sailkatuta daudenekin, besteak beste, zigzag moduko marka horizontal horien gainean aparkatzea edo bertan aparkatzea debekatzen duen seinale bertikal batek zamalanetarako mugatutako gune batean aparkatzea.

2. Administrazio-espeditentearen arabera, kexagilea zigortu zuten zigzag moduko marka horizontal horiekin seinaleztatutako gunean aparkatzeagatik; seinale horrek aparkatzea debekatzen zuen, zamalanetako aldea zelako. Horrez gain, kexagilea zigortu zen Zirkulazioko Araudi Orokorraren 91.2. g) artikuluan ezarritako arau-hauste larri baten erantzule gisa, hain zuzen ere, "*zamalanetako aldean aparkatzea, oztopatuz*". Hori guztia kontuan hartuta, argitu behar da arau-haustea behar bezala frogatu den; izan ere, hori da kexan azaltzen dena.

Interesduna manu bat urratzeagatik zigortu zuten; manu horrek hauxe xedatzen du:





"Se consideran paradas o estacionamientos en lugares peligrosos o que obstaculizan gravemente la circulación los que constituyan un riesgo u obstáculo a la circulación en los siguientes supuestos:

(...)

g) Cuando el estacionamiento tenga lugar en una zona reservada a carga y descarga, durante las horas de utilización".

Aipatutako manua bete ez dela jotzeko, ezarri behar da kexagileak aparkatu zuen zatia zamalanetarako gordeta zegoen eta horrela seinaleztatuta zegoen egiaztatu den edo ez. Horrez gain, jakin behar da ibilgailuak zirkulazioa oztopatzen zuen; izan ere, adierazi denez, arau-hauste horregatik zigortu dute.

Udalak emandako informazioaren arabera, aipatutako zatia zigzag moduko marka horizontal horiekin seinaleztatuta zegoen soilik. Marka horiek aparkatzeko debeku orokorra jasotzen dute eta erabilera bereziko erreserba orokorrera daude lotuta. Gainera, Zirkulazioko Araudi Orokorraren 171. a) artikuluan honela definitzen dira:

"Marca amarilla zigzag. Indica el lugar de la calzada en el que el estacionamiento está prohibido a los vehículos en general, por estar reservado para algún uso especial que no implique larga permanencia de ningún vehículo. Generalmente se utilizará en zonas de parada (no estacionamiento) de autobuses o destinadas a la carga y descarga de vehículos".

Beraz, interesdunak aparkatu zuen zatian zegoen seinalearen legezko definizioaren arabera, seinale horrek soilik mugatutako aparkalekuaren erreserba egonaldi luzeak ez diren edozein erabilera berezietarako dago gordeta, besteak beste, autobusen geltokia edo zamalanak. Izan ere, horietarako erabiltzen da oro har, erreserba ezarri ahal den kasu bakarrak ez diren arren.

Seinaleekin batera ez badago erreserbaren erabilera zehatza identifikatzen duen beste seinale osagarririk, helarazi diguten informazioaren arabera, kexaren kasuan gertatu zen bezala, erakunde honen ustez, ez dago oinarririk bidearen erabiltzaileei erabilera zehatz hori ezagutu dezaten eskatzeko.

Erakunde honentzat eztaba da, zigzag moduko marka horiekin seinaleztatutako zati batean aparkatzen dutenei zamalanetako aldean aparkatzeagatik erantzukizunak eskatu ahal izateko, zati horretan ez bada zehazten zatiaren erabilera, pertsona horiek jakin behar dutela espazio hori zamalanetarako gordeta dagoela. Argi dago datu hori ezin dela ezagutu dagozkion seinaleek ez badute hori zehazten.

Horrek esan nahi du interesdunari ezin zaiola eskatu aparkatu zuen zatian zeuden zigzag moduko marka horizontalek zamalanetako aldea mugatzen zutela jakiteko, are gutxiago, kontuan hartzen bada zamalanetako aldea seinale bertikal batek mugatzen zuela, baita zigzag moduko marka horizontalek ere. Interesdunak ezin bazuen jakin aparkatutako zatia zamalanetarako gordeta zegoela, ez zelako horri buruz ezer adierazten zati hori mugatzen zuen





seinalean, ezin da esan izaera horretako erreserba urratu zuenik, soilik seinale hori ez errespetatzeagatik.

Komeni da gogoraraztea udalari dagokiola seinaleak baldintza egokietan mantentzea (Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuaren 57. artikulua, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretuak onartutakoa, orduan indarrean zegoena).

Beraz, erakunde honek uste du interesdunak aparkatu zuen gunea ez zegoela zamalanetako alde gisa seinaleztatuta. Gainera, aurrerantzean arrazoituko denez, ez du ematen ezta erabilera horretarako gordeta zegoenik ere.

Zigzag moduko marka horizontal horiak ez errespetatzea, horietan ez bada adierazten marka horiek ezartzen duten aparkatzeko erreserbaren erabilera, (hori izan zen kexaren xede den zigorra eragin zuena) administrazio-espeditentearen arabera, argi dago arau-hauste bat izan ahal zela [Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuaren 39.1.c) eta 39.2.a), 65.3 eta 53. artikulua, Zirkulazioko Araudi Orokorren 94.1.c), 94.2.a), 132 eta 171.a) artikuluei dagokienez]. Baina ezingo zen subsumitu, erakunde honen ustez, kexagilea zigortu den arau-haustean. Arau-hauste hori hauxe da: *"zamalanetako aldean aparkatzea, oztopatuz"*, Zirkulazioko Araudi Orokorren 91.2. g) artikuluan ezarritakoa.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da udalak kexagileari erantzukizuna eskatu ahal izateko, zigzag moduko marka horizontalak errespetatzeko betebeharra ez betetzeagatik, dagokion zehapen-prozedura izapidetu behar zuela. Horretan, arau-haustearen oinarri gisa ezarri beharko zuen betebehara hori ez betetzea; baina azpimarratzen dugu hori ez dela zehapen-prozedura eta kexa honen xede den zigorra eragin zituen egitatea, azkenengo prozedura honen administrazio-espeditentean agertzen denez. Gainera, arau-haustea manu horien arabera sailkatu behar zen, ez egin zuen bezala.

Erakunde hau ados dago udalarekin, hau da, trafikoko araudiak ez du eskatzen zigzag moduko marka horizontalen bidezko seinaleak seinaleztatutako gunearen erabilera bereziari buruzko informazioarekin osatzeko. Hala ere, argitu behar da adierazi dela informazio hori beharrezkoa dela asmoa aipatutako seinalea errespetatzen ez duena zigortzea bada, ez bete ez duelako, baizik eta ez duelako kontuan hartu seinaleztatutako gunea erabilera zehatz batera bideratuta zegoela, kexaren kasuan gertatu den bezala. Izan ere, errepikatu behar dugu erabilera hori zein den zehazten ez bada ezinezkoa dela jakitea, eta horrenbestez, horregatik erantzukizunak egozte.

Bestalde, gogorazi behar da administrazio-espeditentean dagoen arau-haustearen froga bakarra argazki bat dela, irudiak biltzeko erabilitako bitartekoak egindakoa. Hala, horrek ez du frogatzen kexagilearen ibilgailua zamalanetako aldean aparkatuta zegoenik, ezta zirkulazioa oztopatzen zuenik ere. Izan ere, arau-hauste horregatik zigortu zuten. Argazkiak soilik egiaztatzen du ibilgailua zamalanetako aldea mugatzen zuen seinale bertikalaren aurreko gunean aparkatuta zegoela; hori soilik zigzag moduko marka horizontal horiek zegoen seinaleztatuta. Nabarmendu nahi dugu hori beste kontu bat dela eta ez dagoela aipatutako arau-haustearen barne.





Azaldutakoaren ondorioz, Arartekoak uste du kexa honen xede den zehapen-prozeduraren administrazio-espeditentean ez dagoela frogarik kexagilea zigortzeko, arau-hauste larri baten erantzule gisa. Arau-hauste hori Zirkulazioko Araudi Orokorren 91.2. g) artikuluan aurreikusten da, *"zamalaretako aldean aparkatzea, oztopatuz"*. Administrazio-espeditentearen arabera, arau-hauste eta egitate horregatik zigortu zuten.

Arartekoaren aburuz, arau-hauste hori ez egiaztatzeak ezartzen du interesdunari arrazoi horregatik jarritako zigorrak ez duela baliorik, errugabetasun-presuntzioaren eskubidea aplikatuz, (Konstituzioaren 24.2 artikulua eta azaroaren 26ko 30/1992 137.1 artikulua).

3. Zigzag moduko marka horizontal horiekin soilik seinaleztatutako gune batean aparkatzea arau-hauste arin gisa sailkatuta dago legez, trafikoko araudiak ezarritako arauak aplikatuz. Horien arabera, izaera hori izango dute araudi horretan larri edo oso larri gisa sailkatuta ez dauden arau-hausteak, aipatutako markak errespetatzeko betebeharra ez betetzeari dagokionez gertatzen den bezala. [Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuaren 39.1.c) eta 39.2.a), 53 eta 65.3. artikulua, Zirkulazioko Araudi Orokorren 94.1.c), 94.2.a), 132 eta 171.a) artikuluei dagokienez]

Aurretik adierazi dugun bezala, kexaren kasuan, egitate hori gaizki sailkatu zen eta, gainera, arau-hauste larri gisa sailkatu zen; hori ez dator bat adierazitako legezko sailkapenarekin.

Administrazio-espeditentean ez da azaltzen zergatik sailkatu zen egitatea arau-hauste larri gisa. Horrez gain, ez du egiaztatzen interesdunaren ibilgailuak zirkulazioa oztopatzen zuenik. Hori agian izan da horrela pentsatu delako zigortu den arau-haustea, hau da, zamalaretako aldean aparkatzeak (gure ustez, frogarik gabe, adierazi den bezala) berez zirkulazioa oztopatzea dakarrela, eta horregatik, ez dela gehiago egiaztatu behar.

Arartekoaren ustez, gaiaren interpretazio honek ez dauka babesik trafikoko araudian.

Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulua *"en zonas señalizadas para carga y descarga"*, aparkatzea debekatzen du, baina ez du arau-hauste hori larri edo oso larri gisa sailkatzen. [39.2. c) eta 65. artikulua]

Arau horrek arau-hauste larri gisa sailkatzen du zenbait lekuetan aparkatzea, baina leku horien artean ez ditu sartzen zamalaretarako gordetako guneak [65.4. d) artikulua]. Manu horrek larri gisa sailkatzen du leku hauetan aparkatzea: *"en cualquier otro lugar peligroso o en el que se obstaculice gravemente la circulación o constituya un riesgo, especialmente para los peatones"*. Horrenbestez, horrek oztopatu dela egiaztatzea dakar.

Testu artikulatuak berak ezartzen dituen arau orokorrak aplikatuz, zamalaretako gunean aparkatzea zirkulazioa oztopatu gabe, legez, arau-hauste arin gisa sailkatuta egongo zen.





Zirkulazioko Araudi Orokorrak zamalanetarako seinaleztatutako guneetan aparkatzea debekatzen du, baina ez du arau-hauste hori larritzat jotzen dituenen artean sartzen, testu artikulatuaren 65.4. d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, [94.2. c) eta 3. artikulua, 1. atalari dagokionez].

Araudi beraren 91.2.g) artikulua ez betetzeagatik zigortu zuten kexagilea. Artikulu horren arabera, zirkulazioa asko oztopatzen duten aparkaleku gisa hartzen dira, esan den bezala, kasu zehatz batzuetan zirkulazioa oztopatzen dutenak, besteak beste, zamalanetarako gordetako gune batean aparkatzea.

Erakunde honen ustez, aipatutako manuetatik ondorioztatzen da zamalanetako aldean aparkatzea zirkulaziorako oztopo bat izan behar duela arau-hauste larri gisa sailkatzeko. Gainera, oztopatzea ez da inplizituki agertzen arau-haustean bertan.

Horrenbestez, jo daiteke kexagileak zamalanetako aldean aparkatu zuela, baina adierazi denez, erakunde honek uste du hori ez dela behar bezala egiaztatu. Hala ere, ez denez justifikatu ibilgailuak zirkulazioa oztopatzen zuenik, nolana ere, ezingo zen arau-hauste larri gisa sailkatu, ezta horrela zigortu ere.

4. Aurrekarietan jaso da, udalak erakunde honi bidalitako informazioaren arabera, interesdunak aparkatu zuen lekuan zeuden zigzag moduko marka horizontalen bidezko seinaleak zati hori eta zamalanetako alde gisa mugatutako gunea hartzen zituela. Seinale bertikalak mugatzen zuen alde hori arrazoi horregatik.

Adierazi den bezala, kexagileak kexan adierazi zuen seinaleak nahasgarriak zirela eta interpretatu zuela seinale bertikala errespetatu behar zuela, trafikoko araudiak ezarritako irizpideak aplikatuz. Irizpide horien arabera, seinale bertikala gailentzen da horizontalaren gainetik kontraesanik egotekotan (Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuaren 54. artikulua eta Zirkulazioko Araudi Orokorraren 133. artikulua).

Bestalde, kontuan hartu behar da, interesdunak adierazi zuela, trafikoko araudiaren arabera, zamalanetako aldea mugatzen zuen seinale bertikalak ezartzen zuen aparkatzeko debekua seinale bertikalean hasten zela, seinalean bertan dagoen norabidearen geziak adierazitako zentzuan. Udalak ez du hori zalantzan jarri (Zirkulazioko Araudi orokorraren 154. artikulua —R-308 seinalea—).

Halaber, aurrekarietan adierazi dugu udalak zigzag moduko marka horizontal horiak kendu zituela kexagileak aparkatu zuen zatian, bertako seinaleak zamalanetako alde gisa zehazki seinaleztatutako gunean zeuden seinaleetara egokitzeko. Horrela, adierazi da aldaketa horrekin zati horretan aparkatzea ahalbidetu zela. Horrez gain, adierazi da, udal informazioaren arabera, agian aldaketa hori egin zela interesdunak zentzu horretan aurkeztutako eskaera dela-eta. Eskaera hori aurkeztu zuen zamalanetako aldean aparkatzeagatik jarri zioten salaketaren aurkako alegazioen idazkian. Hala, udalak aitortu du seinalea "*manifiestamente mejorable*" dela.

Hori ikusita, erakunde honek uste du kexagileak zamalanetako aldea mugatzen duten seinaleei buruz egindako interpretazioa trafikoko araudiak berak babesten duela eta udalaren geroko jarduketak ere bai. Izan ere, dirudienez,





horrek adierazten du kexagileak aparkatu zuen zatiko seinale horizontalak ez zetozeela bat zamalanetako aldea mugatzen zuen seinale bertikalarekin, eta zati hori ez omen zegoela zamalanetarako gordeta, ezta beste erabilera berezi batzuetarako ere. Beraz, arazoa da bertan zeuden seinaleak ez zirela behar bezala egokitu zamalanetako aldea mugatzen zuen seinalera.

Udalak azaltzen duenez, bi seinale mota horiek teorian ez dira bateraezinak. Hala ere, bateragarriak izango ziren, kasu honetan, ematen duenez, modu desberdinean seinaleztatzen bazuten zamalanetako aldean aparkatzeko debeku bera.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honakoa da Bilboko Udalari luzatzen zaion

GOMENDIOA

XXX-i, XXX zenbakidun prozeduran jarritako zigorra indargabetzeko, "*zamalanetako aldean aparkatzea*"-gatik.

